


Windows XPn Wireless utilitatearen erabilera

Bi modutan konfigura daiteke Windows XPn PCMCIA Wireless LAN txartela: **Wireless LAN utilitatea** erabiliz eta **Windows-en Wireless Sarearen konfigurazioaren** bidez. Horietako bat hautatzeko, Windows-en Wireless Sarearen konfigurazioa aktibatu edo desaktibatu behar duzu.

Windows-en Wireless Sarearen konfigurazioa aktibatzea

1. Egin klik saguaren eskuineko botoiarekin Wireless utilitatearen ikonoan eta sakatu Irten.




2. Egin klik Windows-en Wireless Sarearen konfigurazioaren ikonoan.



Windows Wireless Network Configuration

3. Sakatu Aurreratua botoia.




Egiaztatu “Erabili Windows wireless sarearen parametroak konfiguratzeko” markatuta dagoela eta sakatu OK.

Oharra: Windows-eko wireless sarearen konfigurazioa erabiltzeari buruzko xehetasun gehiago behar badituzu, joan Microsoft Windows XPren on line laguntzara.



Desaktibatzea eta Wireless LAN utilitatea erabiltzea

1. Egin klik saguaren eskuineko botoiarekin utilitatearen ikonoan eta sakatu Irten.




2. Egin klik Windows-en Wireless LANen konfigurazioaren ikonoan.



Windows Wireless Network Configuration


3. Sakatu Aurreratua botoia.



Egiaztatu "Erabili Windows wireless sarearen parametroak konfiguratzeko" ez dagoela markatuta eta sakatu OK.



Sakatu Hasi → Programak → IEEE802.11b WLAN Card Utility WLAN txartelaren utilitatea berrabiarazteko.



Wireless LAN utilitatea azalduko da. Egin bi aldiz klik ikonoan, utilitatea irekitzeko.



Wireless LAN Utility

Sakatu Re-Scan botoia, Wireless utilitatearekin hasteko. PCMCIA txartela konfiguratzeko prozesua CD-ROMaren erabiltzailearen eskuliburuan azalduko da.

